

MEMORIA

LEGORRETAKO ZINEMAREN BERRIKUNTZARAKO PARTE HARTZE PROZESUA



1.go SAIOA

Data: 2014ko maiatzak 8

Ordua: Arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara

Bideratzaileak: Jon, Eider eta Aloña



PARTE HARTZAILEAK

Legorretako herritarrok,

Asun Larrea (Odol emaleak), M^a Jose Urretabizkaia, Arantxa Eskisabel, Joxe Manuel Etxeberria (Aldaieta Jubilatu Elkartea eta Elekun Abesbatza), Maddi Jauregi (Gazte Piku Gazte Asanblada), Aitziber Bereziartua (Irrintzi Alai, Lugorri Dantza Taldea), Xabin Fernandez (Irrintzi Alai Dantza Taldea), Nagore Sánchez, Iñigo Lasa (Udaletxea), Leticia Eceizabarrena (Ugarotarrak Guraso Elkartea), Mirari Amundarain (Ugarotarrak Guraso Elkartea), Asier Zinkunegi (Dar-Dar Antzerki Produkzioak S.Coop.), Beñat Jauregi, Nekane Iturrioz, Carmen Mendez (Parrokiko Elkartea), M^a Carmen Gaztañaga, Lurdes Gaztañaga, Itziar Sarasua, Iker Zinkunegi (Dar-Dar Antzerki Produkzioak S.Coop.), Zelai Amenabar (Dantza Taldea, Zero Zabor), Haritz Gorostidi (Aldapa Haundi Elkartea), Asier Etxabe, Urtzi Larrea (Aldapa Haundi, Bilkoin Areto Futbola), Jesus Mari Arrizabalaga (Udal Kultur Arloko langilea), Bakartxo Mendez (Udala), Xabier Pérez, Esteban Pérez



SARRERA ETA AURKEZPENA

Saioari hasiera emateko, borobilean eseri gara. Fitxa pertsonala betetzeko eskatu zaie parte hartzaileei eta ondoren Alkateak prozesuaren aurkezpena egiten du. Duela urte batzuk zinearen berrikuntzari buruzko hausnarketa bat egin zela esaten du. Baina orain iritsi da berrikuntza hori egiteko aukera, orain finantzaketa iturriak badaudelako. Urte batzuk pasa direnez, jakin nahi dute, herritarren beharrak berdinak izaten jarraitzen duten edo gauzak aldatu egin diren.

Parte hartze prozesua aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiko Sozietate Publikoa den “Itten, herriekin lan egiten SA”-ren laguntzarekin kontatu dute.

Ondoren bakoitzak bere burua aurkeztu dugu bere izena esanaz.

Prozesuaren helburua zein den esan dugu: eraikinaren birgaitze proiektua egin aurretik, eman behar zaion erabilerari buruzko irizpideak zehaztea.

Ondoren Zinera joan gara tailerrekin hasteko.



LAN KOLEKTIBOAREN HASIERA. TAILERRAK

Parte hartzaileak 6 taldetan banatu dira. Legorretako plano bat, gometsa batzuk eta kartulinak banatu zaizkie eta hainbat galdera egin dira:





- 1.- Planoan gune kultural guztiak kokatu
- 2.- Leku horiei ematen zaien erabilera eztabaidatu eta bere egokitasuna aztertu (espazio aldetik, kudeaketa aldetik, etab.)
- 3.- Espazio egokia izanez gero zein beste kultur adierazpeni eman ahal izango litzaioke irtenbidea?



Guzti hau egin ondoren denok elkarrekin eseri gara eta talde bakoitzeko ordezkari batek ateratako konklusioen aurkezpena egiten du:

Paper handi batean aipatzen diren kultur guneak idatzi ditugu eta egokitasunaren arabera post-it gorriak eta berdeak erabili ditugu.





Ateratako konklusioak:

1. eta 2. galderak:

KULTUR GUNEA	EGOKIA	DESEGOKIA
1.- Musika Eskola		Etxebizitza batek ez dituelako betetzen musika eskola batek behar dituen baldintzak (txikia, akustika, ez dago prestatua, hotza, iluna, hezea)
2.- Eskola	Eskola bezala	Gimnasioa desegokia (hezetasuna, zaharra, txikia, musika aparatuek ez, komunik ez, aldagelarik ez...)
3.- Kiroldegia	Kanpoko kirolerako egokia. Herri kirolak. Garagardo azoka. Kontzertuak. Txapelketak. Futbol partiduak	Aldagelak beharko lituzke. Hotza. Zikina. Kontzertuetarako sonorizazio desegokia eta trena ondoan.
4.- Kultur Etxea	Liburutegia. KZ gunea. Ume txikien gunea. Erakusketak. Hitzaldiak.	Balioanitzak ematen zaizkio horretarako baldintzak betetzeko (liburutegia, dantza, play-back, zinea...)
5.- Gaztetxea	Egokia	Eraikuntzak limitazio ugari du, hala ere, beraiek dira hori buruz hitz egiteko egokiak. Ez egokia Kontzertuetarako, Lehiaketetarako, bertso saioetarako
6.- Herri Zinema	Igandeko zinea. Bertso saioak	Eszena tokia desegokia. Eserlekuak oso zaharrak eta eszenatokiarekin ez daude alineatuak. Pantaila erortzeko zorian. Proiektorea ez dabil ondo. Kalefazioa. Iluminazio sistema txarra.
7.- Eliza	Egokia	
8.- Herriko plaza nagusia	Egokia	
9.- Udaletxea	Egokia	Hitzaldiak. Koroak. Euskara klaseak
10.- Frontoia	Pelota. Festak	Ura sartzen da. Alkantarillak altxatu egiten dira. Gradak. Aizkorarako ez egokia. Tamainaz eskasa
11.- Dar-Dar Produkzioak	Egokia Bulegotarako	Desegokia antzerki ekoizteko
12.- Aldapa Haundi	Mendi irteerak. Bertso Afariak. Mus txapelketa. Hitzaldiak. Liburu aurkezpenak, film proiektzioak	Hitzaldiak. Liburu aurkezpenak
13.- Bilkoin	Mus txapelketa. Sukaldaritza. Bertso bazkaria.	
14.- Apaiz Etxea		Odol emaileak. Meza. Katekesis.


		Zaharkitua
15.- Jubilatuta Elkartea	Egokia	Kallista, pelukeria...
16.- Jota kea	Bazkariak, sukaldaritza, ikastaroak...	





3. galdera:

- Gimnasio bat behar bezala egokitua.
- Pilotaleku handi bat
- Herriko talde eragileentzako lan gela egokitu bat
- Musika taldeak jotzeko aretoak (entsaiotarako lokal txikiak), koruak, dantza emanaldiak, antzerki saioak
- Igerilekua: Oriar aurreko terrenoan
- Zinea: aukera eman behar da ekintza mota ezberdinak aurrera eramateko. Dagoen moduan ikus entzuneke emanaldiak dira posible baina ez dela nahikoa uste dugu.
- Innobazio soziokulturaleko gune bat sortu.
- Ekintzaileentzat espazioa
- Kultur sorgunea
- Musikariak beraien maketak grabatzeko guneak
- Kafe antzokia



Hurrengo pausua, detektatu diren behar guzti horietatik, zinemako eraikineraz zeintzuk pasa nahi diren erabakitzea da. Hori egin aurretik zinemako aretoak daukan maldari buruz hitz egiten dugu. Ikus entzunezko ekintzetarako malda mantendu nahi bada, aretoak aukera gutxi ematen ditu gauza gehiagotarako erabiltzeko. Malda kentzea erabakitzen bada, aukerak aztertu beharko dira.

Denon artean erabakitzen da malda kentzea.

Denboraz larri gabiltzanez, hemen bukatutzat ematen dugu saioa eta hau izango da datorren ostegunerako abiapuntua. Behin erabaki hau hartuta, datorren saioan zein ekintza sartuko diren eraikin honetan erabaki beharko da.



BALORAZIOA

Amaitzeko, parte hartzaileei saioaren balorazioa egiteko eskatu zaie. Horretarako, 1etik 5era bitarteko zenbaki bat jartzeko eskatu zaie.

